

# Gabeko Izar

**Tempo di vals**

*Herrikoa*




© 2009 by Aitor Amezaga







Gabeko izar argitxuena
piztuzarekin batera.
Aurtxo eder bat etorri zaigu
gau arratzean etxera.
Ordu ezkero etxeko danok
poztu ta zoratzen gera.
Aurra dalako zerutik onuntz
datorren Jainko ber-bera.

Alai ta pozik kanta dezagun
aurtxo onen etorrera.
Gure illuna alaitutzeko
jaio dan argi ederra.
Gaurtik aurrera azterri ontan
zorionekuak gera.
Aurra dalako zerutik onuntz
datorren Jainko ber-bera.

Gau eder ontan zeru goitikan
jetxi da Jauna ber-bera.
Zure itz ona entzutearren
goaz leial Belenera.
Itz egiguzu, Jaungoiko itza,
ixil-ixil biotzera.
Zure ondoan gabon gau ontan
egotekotan bai gera.

